

## DIAMANTE BELTZAK

2013ko pelikula espainiarra. 1h 50 min. **Adingabeko futbol jokalaria afrikarren trafikoa salatzeko** MIGUEL ALCANTUDEk zuzendutako koprodukzio espainiar-portugaldarra .

Afrikako lur gorriko zelaietan, ETOO berria, DROGBA berria izatearekin egiten dute amets hurrek. UMEAK BAINO EZ DIRA, DIAMANTE BELTZAK ordezkari faltsuentzat, zeinek beren herrialdetatik (Mali, kasu, baina beste edozein izan liteke) ateratzen dituzten, **izar bilakatuko direla aginduz.**

OSO LAN DOKUMENTATUA da.

Alcantud zuzendariak dio: “Zintzo izaten ahalegindu gara. Ez genuen manipulatu nahi, ezta sentikortasun eta haratustel gehiegirik jarri ere. Errealitatearen lagin bat eman nahi genuen.”

URTEBETEKO IKERKETA.

Oslon, RONNY VAB DER MEIJ elkarrizketatzen da, norvegiar abokatua, kirol zuzenbidean aditua eta zenbait azterlanen egilea.

Parisen, Jean Claude MBVOUVIN ezagutuko du zuzendariak, Culture Foot Solidaire GKEko kidea, futbol jokalaria aritzeko Europara heldutako gazte afrikarretan espezializatuta dagoena. “Bere kasua kontatu zidaten zenbait gazterekin jarri ninduen harremanetan (Jean Claudek)”, dio zuzendariak. European 20.000 inguru dira, 1.000 baino gehiago Paris aldean bertan.

**Salgai gisa tratatzen dituzte. %99 ez dira diamante bihurtzen!**

**ALASSANE DIAKITE** protzentaia honi dagokio: “Nire bizitza filmaren %95 da. 16 urte nituenean, Malira etorri ziren nire bila eta engainatu ninduten. Zorionez, nire lehengusua Madrilen bizi zen.” Orain Canillas taldean (Madrilgo futbol eskola amateurra) jolasten du. **“SUFRITU DUT, BAINA EZ NAIZ KEXU, BESTE BATZUEK ZORTE OKERRAGOA IZAN ZUTEN”.**

Bere bidea kasualitatez gurutzatu zen Alcantud zuzendariarenarekin. “Bisa lortzeko tramiteak egiten ari ginela, Maliko kontsulatuako neskak esan zidan pelikulan kontatu nahi nuen istorioa bizi izandako norbait ezagutzen zuela. Deitu genion, konektatu genuen eta paper txiki bat eman genion.”

**Pelikulako pertsonaiak Malitik Espainiara doaz, eta gero beste herrialde batzuetara mugituko dira lan aukeren bila.**

ESTONIAkoa JOHN OBI MIKELen kasua da. Chelsea-k ezkutatu zuen Manchester United-ek eraman ez zezan, kontratua egiteko paperak behar bezala izan arte itxaron bitartean. Noruegara eraman zuten eta, herrimina zuenez, hiru nigeriar jarri zituzten berarekin entrenatzen. INBERTSIOA BABESTEKO EGIN ZUTEN HAU.

18 urte bete zituenean, Chelsea-k norbegiar taldeari erosi zion, bere formakuntza ordaindu eta Manchester United diruaz isilarazi zuen.

**PORTUGALEkoa benetakoa da.**

Erabiltzen duten metodoa honakoa da: gazte pila jartzen dituzte jolasten eta futbol taldeen ordezkariak eta ikuskatzaileak deitzen dituzte. **MERKATU BAT DA. SALGAIK ERAKUSTEN DIRA. OSO PARTIDA GOGORRAK IZAN OHI DIRA.**

Partida hauetan, ez dago talde lanik. Garrantzitsuena indartsuena, argiena izatea da. **GLADIATOREEN BORROKA BAT DIRUDI.**

FILMAZIOA eta ANTZEZLEAK.

Filmatzea Malin gauzatu zen, grabaketa talde txiki batekin. Oso korapilatsua izan zen, Maliko iparraldean gertatutako hiru pertsonen bahiketarekin kointziditu zuelako.

CASTING-aren EGUNEAN, ehunka gazte agertu ziren hotelean, futboleko oso ondo jokatzen zutenak.

Casting honetan SETEGUI DIALLO hautatu zuten MOUSSAren, ezizenez “serioa”, paperarentzat. Seteguik bere futbol taldeko lagun bat, HAIMIDOU SAMAKE, aurkeztu zuen AMADOUren rolarentzat. “Irribarre egiten zuen 45 gradutan jolasten aritu arren! Konkistatu gintuen.”

Alcantud zuzendariak behin eta berriro errepikatzen zuen: **“ZURIA NAIZ, BAINA EZ NAIZ FUTBOL IKUSKATZAILEA”.**

Bi gazte/aktore hauek Diamante Beltza-ren adibide dira. **Ikuskatzaile batek hartu zituen, aldez aurretik familiak 2.500€ ordainduta, eta eguneko 1€-rekin BIZIRAUN zuten.** Herri osoak ordaintzen du gaztea izar bat bihur dadin.

Huts egiten badu, ezin da herrira itzuli, baztertuko baitute.

Europara iritsita, euren ametsaren erralitate gordina ezagutuko dute.

HAIMIDOU eta SETIGUI **aktoreak dira.** Ez zuten inoiz bidaiatu Malitik kanpora. Ez dakite gazteleraz hitz egiten. Bambara eta frantseza dakite, eta apur bat ingelesez: “Eurekin lan egitea oso dibertigarria izan zen! Aktoreak zuzentzeko modu berri bat diseinatu behar izan dugu, jolasak asmatuz. Aurretik genekien ezerk ez zigun balio! Nire egitekorik handiena (Haimidou eta Setegui) intentsitatez jaitsiaraztea izan zen. Oso sutsuak dira, beti haserre daudela dirudi. Aktore profesionalekin nahastea oso dibertigarria izan zen ere bai”.

CARLOS BARDEMek, WILLY TOLEDOrekin batera, ikuskatzaile espainiar baten papera dauka.

Bardem-ek dioenez, “EMAKUMEZKOEN SALEROSKETAREN EZAUGARRIAK DITUEN DRAMA BAT DA, PERTSONEN TRAFIKO BAT DA”.

Zuzendariari irribarrea ezabatzen zaio ESPAINIAR (futbol) KLUBei egindako babes eskaeraren inguruan hitz egitean. “Adingabekoen trafikotik kanpo deklaratu diren Atletiko eta Valentzia futbol taldeen aldeko erantzuna jaso genuen. Baina bi talde handiri deitu genien, bat zuriz doa eta bestea gorri eta urdinez, ETA EZ ZIGUTEN HARRERIK EGIN, EZ ZUTEN EUREN IRITZIA EMAN NAHI!”

FIFAk debekatzen du Europar Batasunatik kanpoko herrialdeetako adingabekoak kontratatzea, **baina badaude amarruak.** Ikasteko beka faltsuak eskaintzen dizkiete edo euren dokumentuak aizundu. Gazte hauek ez daude prest, arrakasta izan zein ez izan, jasan beharreko bizimodu aldaketara egokitzeko. **ZORAKERIA DA!**

ZUZENDARIA. MIGUEL ALCANTUDEk (1971), Kartagenan jaioa, Alex de la Iglesia, Montxo Armendariz eta Bigas Lunaren taldean lan egin zuen. IMPULSOS, ANASTEZSI eta VICEVERSA zuzendu zituen zineman, eta, telebistan, El Internado eta Águila Roja-ren zenbait kapitulu. Antzezlanak, iragarkiak, eta GKE eta fundazioetarako bideoak ere zuzendu ditu.

ALCANTUD “MIKROANTZERKIA DIRU TRUKE”-ren FUNDATZAILEA da, zeinek pobreziaren aurka egiten duen kulturaren bitartez (Mali-n eta Paraguay-n, batez ere). VOCES (ahotsak) FUNDAZIOAren kide ere bada.

Valle Inclán sarirako hautagai izan zen.

DIAMANTE BELTZAK.

Ikusleen Saria 2013ko Malagako Festibalean.

Fikziozko pelikula hunkigarri eta entretenigarria da, mezu bat helarazi nahi duena, adingabeko futbol jokalarien trafikoaren aurkako salaketa.

Gainera, baliagarria izango da egoera honen berri emateko Afrikan. ASKORENTZAT, ESPAINIA PARADISU BAT DA!

Handik, bidea erraz ikusten da, baina familiek ez dute informaziorik. Pelikulak distribuzio arazoak izan ditu. Zine aretoek ez dute konfidantzarik futbol, afrikan eta gizarte gaiei buruzko filman, ordu txikitan edo arratsaldeko lauretan jartzen zuten.

DOMAIA ... TXARTO BANATUTAKO PELIKULA ONA.

Filmin-en ikus daiteke.